




**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

597. zkia.

XV. urtea

2007ko urtarrilaren 12a



64. Mugerza Krosa domeka honetan

# Munduko korrikalari azkarrenak Mintxetan

# ERREHABILITAZIO ZENTRUA

MUTUA-ASEGURUAK ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

## CRF

MEDIKU ERREHABILITATZAILEA: DRA. MARIA ETXANIZ



- Fisioterapia Espezializatua
  - Errekuperazio Funtzionala
  - Masoterapia
  - Osteopatia
  - Gorputz Balorazioa
  - Kirol Fisioterapia
  - Hidroterapia
  - Amatasun Prestakuntza
  - Inkontinentzia
  - Logopedia, etab.
- (CRF/ Eibar)



San Inazio, 2  
ELGOIBAR

Tel./Fax: 943 74 33 74

# ARAMBURU

BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO  
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

Bitxi-dendan  
gastatzeko  
500 €-ko  
1. balea

**Zkia.: 1.991**

Ordezkoa: 6.733 zenb.



Bitxi-dendan  
gastatzeko  
500 €-ko  
2. balea

**Zkia.: 2.583**

Ordezkoa: 6.181 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 74 25 35



SARE GURRUTXAGA

Urteko lehen zozokeriari ekitera. Ea ba, Aitzol. 2007.

Gogoz hartu behar diagu urtea. Urtero bezala. Baina konturatu orduko, hor gaituk berriz ere urteko azken kanpaikaden errit-mora mandarina pusketak jaten. Bai, bai. Nire etxean mahatsak ez dik horrelako mirs-men handirik izan sekula. Mandarina atalak jaten ditiagu Urte Zaharra agurtze-ko.

Urtarrilean eskiatzera joan nahiko dik jendeak. Baina ez omen duk urte ona elur gainean irristatzea atsegin dutenentzat.

Otsaila neguaren bihotzean zagok, motz-motza aurten ere. Sagardoa kupele-tan sartuta egongo duk parranda helburu duen edonorentzat.

Martxoa loratzen hasiko duk. Baina ez ditiagu belaxe kenduko jakak soinetik. Aler-gikoen gainbehera hastera zoak. Eutsi!

Apirilean oporralditxo. Hor zehar joate-ko aukera ezinhobea. Mendia, itsasoa, Lon-dres... Gazte Topagunerik ez aurten.

Maiatzean, berpiztu duk natura.

Ekaina, udako solstizioaren sehaska. Gau laburregiak gautxorientzako.

Uztailean... Gora San Fermin Jaiak! De-nok Iruñara. Baina kontuz non aparkatzen duan autoa. Abisatuta.

Luze gertatzen ari zaidak urtea hemen idazteko, Aitzol. Jarraituko al duk hik? Hori bai, abiadura honetan pasatzen bazaiguk 2007a ere, laster zahartuko gaituk!

## ZOZOAK BELEARI...



AITZOL GARMENDIA

«Konturatu orduko urteko azken kanpaikadetan gaituk»

SARE

«Plazan izango gaitun platera frontisean hautsiz eta abestuz»

AITZOL

Uztaileko Sanpemin, Madalena, San-tixo ta Saninazioetako hamaika txozna eta hamaika mila litronen ostean, horra abuz-tua. Elurra eukiko ote dinagu aurten abuz-tuan? Eguraldi zoro honekin ezin jakin zu-rituta ala beltz kiskalita egongo ote garen. San Bartolomeen ostetik, sindromeen iraila. Azken jai hondar eta hondartza egunak. Agur bikini operazioak eta izkutura larrua, adin edo eta marketing kontuak medio izan ezik.

Urriarekin batera bueltan manga luze-ak eta kolore ilunak. Uda garaiko bidaiak preso geratu ditun argazkietan baina aske bakoitzaren gogoan. Eguna gauarekin ka-rrean udazkenean barrena, ia zein luzea-go.

Azaroa egutegian gorritz hasiko dina-gu. Hostoak hori eta arratsaldeak azkar ilun, beltz. Abenduan hasiko dun lasterke-ta konsumista eta Gabonetarako azken al-dapa behera. Jai-zubiaren itzaletik laster txistor usaina. Ostean eta beste aste betez, Afrika subsahariar osoa lepo betetzeko besteko tripa festa gurean. Elgoibarko kan-pandorre boteretsuak bere kanpai are bo-teretsuagoaz hamabigarren aldiz ingu-ruak astindu arte.

Eta orduantxe gu plazan izango gai-tun, aspaldiko tradizio bati jarraiki platera frontisean hautsi eta plaza bete zabal den korro baten inguruan Urte Berriaren etorre-rari abestuz.



ETORKIZUNAK DUEN ONENA, EGUNEAN BEHIN BESTERIK EZ DELA HELTZEN



Abraham Lincoln

## Pirritx eta Porrotxen saioa dela eta, A.L.k idatzitakoari erantzuna

Idatzi honen bidez, A.L.k bere gutunean adierazitako hainbat gauza okerri buruzko azalpena eman nahi du Udaleko Euskara Sailak:

1. Pailazoen saioa Udaleko Euskara Batzordeak antolatzen duela urtero, duela hamar urtetik, eta ez Kultura Batzordeak. Beraz, Kultura saileko buruak ez duela inolako erantzukizunik arazo honen aurrean.

2. Sarrerak saltzeko, Udalak ez dituela aurrez bi egun ezartzen, baizik eta egun batetik aurrera salgai jartzen direla. Beste kontu bat da, demandaren ondorioz sarrera horien salmentak zenbat irauten duen. Aurreko Gabonetan, adibidez, bospasei egunetan saldu ziren, oraingoan, beriz, hiru egunetan saldu dira guztiak. Beraz, A.L.k dioen bezala adi ibili beharra dago, batez ere, hain arrakasta handiko ekitaldi bat dagoenean, sarrerak agortu izanaren arazoa ez baita gurean bakarrik gertatu, arazoa ikuskizun hori antolatu den herri gehiengan gertatu baita.

3. "Ezarritako eguna" baino lehen saltzeaz A.L.k dioenari buruz, argitu nahi genuke Udalaren asmoa hasiera batean

abenduaren 1etik aurrera saltzea zela. Hala ere, denda batean herritar askori sarrerak aurrez erreserbatzen ari zirela jakin ondoren, eta horren ondorioz, beste herritar asko eguna iritsi aurretik sarrera gabe geratzeko arriskuan zeudenez, Euskara Sailak erabaki zuen salmenta astebetean aurreratzea, eta horrela jakinarazi zitzaion herriko berriemaileei. Era berean, BARRENe publikistari ere horren berri eman zitzaion, iragarkia astebete lehenago argitara zezan; baina gaizki ulertze baten ondorioz, iragarki horretan salmenta data aldatu gabe azaldu zen, horrek sorrarazi dituen gorabehera guztiekin. Beraz, Udalak ez du emandako hitza jan, hortaz, akatsak akats, komunikazioa bermatu da, bestela, nork uler dezake 800 sarrera hiru egunetan saldu eta erosleen artean bailarako eta bailaratik kanpoko jendea ere egon izana? Nork uler dezake Euskara Sailak bere buruaren aurkako publizitate ordaindua egin izana? Zein interes izan dezake Euskara Sailak herritarrek propio sarrerarik gabe uzteko?

Argi eta garbi utzi nahi dugu, Euskara Sailak ez duela fede txarrez jokatu eta ez duela inor mintzeko asmorik izan; eta gertatu dena gertatu bada, herritarrei egoki erantzutearren izan dela. Eta saioa

tuko garelako datozen urteetan ere ahalik eta ongien jokatzen.

Bukatzeko, honako hau esan nahi diogu A.L.ri: Euskara Saila herritarrek errespetuz tratatzen saiatzen dela, berak ondo dakien moduan. Aldi berean, Euskara Sailetik jaso duen errespetu berbera eskatzen diogu berari ere bai.

### UDALEKO EUSKARA SAILA

## Kultura Sailaren azalpena

BARREN astekarian, abenduaren 22an argitaratu zen "Pirritx eta Porrotx" izeneko gutunari buruz honako hau argitu nahi genuke: Kultura Saila ez delako ekitaldi hau antolatzeaz arduratzen dena, eta beraz, Kultura Saileko arduradunak ez daukala inolako zerikusirik gutun honetan agertzen denarekin.

Aldi berean, gure iritziz, BARREN astekariak, edozein informazio argitaratu aurretik, bertan jasotzen dena baieztatuta beharko luke, erregabeei kalterik ez eragiteko.

Arretaz,

### KULTURA SAILA

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARRENe ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA

**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasona Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## TXALOAK

• **Urgazi Triatloi Taldeak San Silbestre lasterketa antolatzen lagundu zuten guztiak eskertu nahi ditu:** “Aurten tradizio berri bat hasi nahi izan dugu Elgoibarren. Gure herrian lehenengoz, urte zaharra agurtzeko lasterketa herrikoa antolatu dugu eta harrera ezin hobea izan du. Eguraldia lagun izan genuen eta 156 bat lagunek eman zuten izena. Lasterketa herrikoa parte-hartzaile guztiek amaitu zuten eta beraz, gure helburu nagusia bete zen. Gainera, oso giro polita sortu zen herrian. Lehenengo urtea izan da eta zenbait akats izan zela badakigu. Nolanahi ere, datorren urtean, aurtengotik abiatuta hutsak zuzentzen ahaleginduko gara. Eskerrik asko udaltzainei, lasterketa antolatzen lagundu zeniguteno, opariak eman zenituztenei (Garate Jantzi-Denda, Eroski, Iriondo Kirolak, Mintxeta A.T, Pitxintxu, Eiker) eta parte hartu zuten guztioi”.



• **Trinitateetako Tanborradako Batzordetik herritar guztiak eskertu nahi dituzte:** “Aurtengo Gabonetan Trinitateetako Tanborradako Batzordeko kideok loteria saldu dugu eta herritarren partetik harrera bikaina izan dugu. Gurekin kolaboratu duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu; beraien eta guztion laguntza ezinbestekoa baita, aurten ere, tanborrada bikaina prestatzeko”.



## KEXAK

• **Eliza alboko etxea oso egoera kaxkarrean dago:** “Udalak dirutza handia gastatu du eliza aurea eta udaletxe ingurua berritzen, eta benetan dotore gelditu da. Hala ere, eliza aldameneko etxebizitza oso egoera kaxkarrean dago, eta ingurune hori zartatu egiten du. Ondo egongo litzateke berrikuntzaren bat egitea eta fatxada apur bat dotoretzea. Asko irabaziko luke inguruak.



• **Iluntzen duenean Plaza Handiko frontoian ez da ezer ikusten:** “Neguan oso goiz iluntzen du. Arratsaldeko 18:00ak alderako argitasun gutxi egoten da eta egun iluna baldin badago, lehenago. Plaza Handiko frontoian argiren bat jartzea eskertuko genuke, iluntzen duenean ezin izaten dugulako ezertan jolastu. Pilotan jokatzea gustatzen zaigu, eta pilota ikusi ere ez da egiten, baloiarekin ere gauza bera gertatzen zaigu, eta beste edozein jolasetarako ere, argi gutxi egoten da”.

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Saileko burua



Gipuzkoako  
Foru Aldundia





URRUZUNOREN  
*Luma*

Porrotaz

Pelikula bikain bat ikusten hasi dut urtea, *Little miss Sunshine*. Gustura ikusten diren pelikula horietakoa da, entretenigarria, barea eragiten duena, xamurtasun puntua daukana eta, nola ez, pentsarazten dizuna. Ohikoa da urte berria estreinatzen dugun bakoitzean hainbat asmo edo proiektu berri izatea: aurten gimnasia gehiago egingo dut, ea 2007an gutxiago haserretzen naitzen, ea ikasten dudana gauzak lasaiago hartzen... Eta 365 egunak pasa orduko ohartzen gara maiz hasieran genituen plan horietako asko eta asko bere horretan geratu direla, bete gabe. Aipatu dudana pelikulan, hain justu, arrakastaz eta porrotaz ari dira eta bada une bat non elkarrizketa zoragarria duten aitona eta iloba txikiak. Neskatoak porrot egiteko beldur dela esaten dio, hona aitona erantzuten diona: "zerbait egiteko desioa izan eta gaizki aterako den beldurratetik sekula ez ahalegintzea, hori da porrota". Bestela esanda, gure ametsak lortzeko borrokatu behar dugula. Eta urte osoa daukagu horretarako.

Jasone Osoro

[ ZORTZIKO TXIKIAN ]



MARI JOSE  
EZENARRO

GOZOTOKI MARI JOSE  
DENDAKOA

Zenbat urte gozoki artean?

25. Bete gustatu izan zait den-dan lan egitea. Gaztetatik aritu izan naiz lan honetan.

Zein da umeei gehien gustatzen zaien "txutxeria"?

Palomita, gusanitoak eta paketeetako gauzak. Gominolek gora egin dute eta chupa-chups-a asko bajatu da.

Ume asko etortzen da dendara. Pazientzia handia eduki behar al da?

Bai, niri gustatzen zait, umeak oso jatorrak dira.

Gozoa ala gazia duzu nahiago?

Gazia nahiago, baina tartak ere gustura jaten ditut.

Postrerik onena?

Hojaldrezko tarta izozkiarekin.

Dietak eta pastelak joan al daitezke batera?

Bai. Noizbehinka jan daiteke pastela. Egunero jatea ez da ona, baina denetarik jan behar da.

Gehien saltzen den aldizkari arrosa?

"Hola" eta "Pronto". Kotxeen aldizkariak ere ondo saltzen dira, eta gazteen artean "Super pop" eta "Bravo".

Elgoibartarrak txutxumutxuzaleak al dira?

Lehen gehiago saltzen ziren aldizkari hauek, orain telebistan txutxumutxu asko dago.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartek kudeatzen duen

**KIRIBILKA EGITASMORAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA**

Elgoibarko 2-6 urte bitarteko haur eta hauen gurasoei eskainita dago egitasmo hau. Bertan, kanta, jolas, dantza eta antzekoak ikasteko aukera izango dute. Proiektua, Elgoibarko Izarra eta Udalaren laguntzaz jartzen da martxan.

- Bete beharreko ezaugarriak:**
- 18 urte edo gehiago izatea, eta Elgoibartarra edo ingurukoa izatea.
  - Arratsaldeak libre edukitzea
  - Euskara maila ona
  - Komunikazio gaitasuna
  - Haurrekin lan egiteko gogoia (esperientzia baloratuko da).

Interesatuok pasatu Elgoibarko Izarratik (Ubitarte 4-Behea) edo bidali mezu bat [nerea.larra@elgoibarkoizarra.com](mailto:nerea.larra@elgoibarkoizarra.com) helbidera. Informazio gehiago 943 74 16 26 (Nerea) zenbakian.

## [ AKORDATZEN NAIZ ]



**MANOLO UNZILLA**

1924an jaioa

### «Futbola»

**E**xtrerno izquierda postuan jokatzeko nabarabana. Jende ona zakagun eta tenporada polita egin genduan. Orduan Sevilla kategorixako ekipua zan. Famosuak ere jokatzeko zaben gure taldeak: Busto portuak, Guillamon, Campana, Valero Enrike, Araujo, Domech internazionala... 52-53 eta 53-54 tenporadetan egon nitzan. Lehenengotik bildurrez; Valentzia kontra jokatu genduan lehenengo partidua eta *extremo* bixak berixak, bixok Jaendik jundak. Ondo erren zan! Hartu genduan konfiantzia eta lau eta bi irabazi genduan. Oso pozik amaitu genduan.

Gaur egunian ere segitzen dot futbola. Etzian ez dot partidu bat bera ere galtzen. Futbola gora eta futbola behera andria-eta, nazkatuta daude. Eta pelotia ere bai. Asko gustatzen jata. Deportik generalian, danak gustatzen jataz.

Lehen eta oi futbolista izatia oso diferentia da. Oingo futbolistak danak dake kotxia. Orduan ez zakan kotxerik inork ere ez. Sevillan orduan topia zan 100.000 pezeta fitxia, urteko. Gero sueldua zakazun 1.750 pezeta. Horrek goikuak eta gero beste batzuk 50.000, 25.000... Gaur jua zaitte, ia zer fitxa eta zer nolako gorabeherak daozen.



Batak 400 millo, bestiak 20 millo... Orduan ez zaguan holakorikan. Tallarian 300 pezeta hilian irabazten zan altuena. Logroñora jokatzera jua giñarian 750 pezeta ematen zien. Pentsia 300 pezeta pagatzen genduan. 450 pezeta zakaguzen erregian modura ibiltzeko. Eta soldadutzia bertan egitten gainera! Boluntarixu sartu nitzan, ama alarguna nakalako. Kapitaina zan ekipoko direktibua eta berak sartu ninduan. Gero damutu nitzan, boluntarixu 3 urte luze dia-eta! Normala urte bi izaten zan. Konfidantza guztixa nakan kapitanakin eta futbolian jokatzeko permiso guztiak ematen zizkian. Gero beragatikan izurrau naban belauna.

## [ GURE BERBAK ]

### Konparaziozko esaldixak (1)

Konparaziozko esaldixetan, egitura asko daukaguz, bai beste euskeretan bai geurian ere: *baño ...-ago, bezain (bezin), tzeko lain, aldia egon, bezela, moduan, aiña, beste, zenbat eta ...-ago, orduan eta ...-ago, eta abar*. Saillian ikusiko doguz horrek danak.

Hasteko orokor-orokorra dan *BAINO ...-AGO* egitturiaren adibide bat eta berezituagua dan beste egitura bat (*-EN/-KO ALDIAN*).

- *Nerezako etzagan mundu guztian gauza edarragorik haura baño.*

- *Eibartarrak graziosuago egoten dituk hizketan Plazentziakuen aldi.*


- *Basarriko lana lehen zuan gogorra oingo aldi.*

- *Beti izantzan Eibar "socialista" eta "republicano", eta hamenguen aldi oso abantzuak!*

- *Hego-haizia edo trumoi denporia eskasa izaten da. Honen aldi naturalago ... ipar-haize pixkat, eguzki garbixa.*

- *Lehenengo bizimodua oinguan aldi trankilla.*

Jesus Mari Makazaga



*Mutua General de Seguros*

Lehen egindako zozketan irabazlerik egon ez zenez, bihar, urtarrilak 13, **Loteria Nazional**ean ateratzen diren azkenengo 3 zenbakiek osatuko dute, urtero bezeroen artean egiten dugun zozketaren zenbaki irabazlea.



**Estetika**

Eskaerak eta zuzenbidea  
 20090 - Leizorri

San Nazario, 4 behean - Telf: 943 74 27 25

- Gortekak
- Masajak
- Aurreratuak
- Gortekak
- Saleruma (Parizetako eta bertikak)
- Masajak
- Masajak
- Kapizak

GABONAK 2006-07

## GABONAK ARGAZKITAN

*Zer moduz pasatu dituzue Gabonak? Opari asko jaso al duzue? Dagoeneko amaitu dira, baina Gabonetako oroitzapenak ez dira erraz ahazten. Denetarik izan dugu gure herrian, eta eguraldiari esker, denok gozatu ahal izan dugu. Azkar pasatu dira, berehala. Konturatu orduko, 2007a iritsi zaigu eta hasi gara betiko martxan. BARREneko argazki kamarak ez du oporrik eduki eta hemen daukazue Gabonetako irudiak. Argazki guztiak [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atari digitalean ikusi daitezke.*







## [ PROTAGONISTA ]



Anjel **Ugarteburu**

Errege Egunean bete zituen 65 urte, eta 39 urtez irakaskuntzan aritu ondoren, jubilatuta egin da. Azken 24 urteak Elgoibarko BH Institutuan eman ditu irakasle moduan eta 3 urtez, ikastetxeko zuzendari lanetan ere ibili zen. Berriatuko auzoko eskolan, zehazki Millioiko eskolan, hasi zituen ikasketak Anjel Ugarteburuk. Handik, Derioko seminariora joan zen apaizgintzarako ikasketa bereziak burutzera. 10 urte pasa zituen bertan. Euskara hitzean eta bihotzean, bertsolaritza da bere pasioetako bat. Osasunak laguntzen badio, jubilatuta ondoren ere, ez dela aspertuko aitortu digu.

## [ NOTIZIA ]

### Udaberrian hasiko dira Meka proiektuko eraikin berria egiten

**E**lgoibar BH Institutuak Meka proiektua jarriko du martxan. Lehenengo pausoa Albitzuriko industrigunean kokatu den eraikina egitea izango da, eta horretarako obrak datorren udaberrian hasiko dira. Esan digutenez, 2008. urte amaierarako eraikina prest egotea espero dute. Eraikin berriak 3 solairu izango ditu eta 3.894m<sup>2</sup> hartuko ditu guztira.



#### Helburua

Proiektu honek 6.000.000 euro inguru aurrekontua dauka. Jaurlaritzak, bestelako erakunde eta enpresek dirulaguntzak eman dizkiete. BH Institutuko arduradunak 2003. urtean hasi ziren Meka proiektuaren lehen zutabeak jartzen. Helburua karratzu-karenatua erreferentzia izango

den ikasgunea eraikitzea da. Enpresarekin harreman iraunkor eta estuan oinarritutako lanerako filosofiarekin, espiritu ekintzaile eta berritzailearekin, lanbide berrien eskaerak asebate eta etorkizuneko erronkei erantzuna emateko gai izango diren profesionalak prestatzea.

## [ ZENBAKIA ]

# 10.690

Elgoibarrek 10.690 biztanlerekin hasi du 2007. urtea. Iaz baino 152 biztanle gehiago ditu aurten gure herriak. Gipuzkoako herri gehienetan populazioa hasi egin da etorkinen ondorioz, eta Elgoibarren ere, badirudi goraka doala biztanle kopurua. Gipuzkoan iaz baino 3.000 biztanle gehiago daude.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Familiako argazkia daukagu aste honetan. 100 urte bete zituen Marcela Trachek joan zen abenduaren 30ean. Bere birbilobekin ikusten dugu Marcela argazki honetan. Jaiotzez Palentziakoa izanik, alargun gelditu zenean etorri zen Elgoibarrera bere alabengana. Esan digutenez, osasun bikaina dauka Marcelak eta eskulan bikainak egiten ditu oraindik. Irakuritzea eta gantxiloa egitea gustuko ditu. Bere nahia, bere birbilobaren batek umea eduki eta haren bataioa joatea omen da. Zorionak Marcela, urte askotarako.

## ETAk eginiko azken atentatua gaitzesteko komunikatua argitaratu du Udalak



**E**lgoibarko Udaleko Bozemaileen Batzordeak urtarilaren 5ean egindako bileran ETAk Madrilen egindako atentatua gaitzestea erabaki zuen, EAJ-PNV, EA, PSE eta EB alderdi politikoen babesarekin. Beraz, Udalaren izenean eta gure erkidegoko herritarren ordezkari bezala, ondorengo erabakiak argitaratu ditu: batetik, abenduaren 30ean Barajas aireportuan eginiko atentatuaren aurrean samina erakutsi eta atentatua bera gaitzestea onartu zuten. Bestalde, kaltetutako eta zauritutako guztiei babesa eskaintzea, eta batez ere, hildakoen senideei elkartasuna

adieraztea. Ezker Abertzaleari honelako ekintzetatik aldentzeko eskatzen dio, ETAk Euskal Herriko biztanleen eskubide demokratikoak urratzen dituelako. Azkenik, biztanle guztiei era aktiboan bakearen alde parte hartzeko deia luzatzen die, beti ere, modu demokratikoan egiteko esanez.

### Kontzentrazioa

Eusko Jaurlaritzak deituta, urtarilaren 4an Madrilgo atentatuaren kontrako kontzentrazioa egin zen Plaza Handian. 150 lagun inguru bildu ziren guztira, eta ordu laurdeneko isilunea egin zuten.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Ur Termalen Gizarte Programa

Ongizate Sailetik jakinarazi digute-nez, 2007ko IMSERSOren Ur Termalen Gizarte Programarako lekua eskatzeko epea irekita dago. Interesatuak Ongizate Sailean edo Zaharren Biltokian jaso ditzakete eskari orriak.

### Miskiren zozketa

Miski Elkartek zozketatutako otarra 0519 zenbakiaren jabearentzat izango da (5.686 erreserba). Ikastolako DBH2. mailakoek lagundu zieten erririk saltzen eta guztira 740 euro lortu dituzte. Gemma Agirregomezkortak beraien ateratzen zuten argazkia.



### C.D. Elgoibarren zozketa

C.D. Elgoibarrek eginiko zozketan 18.103 zenbakia izan da lehenengo sariaren irabazlea (15.588 erreserba) eta 08.629 zenbakiak bigarren saria jaso du (19.814 erreserba).

### Txankakuaren zozketa

Txankakuak 1.800 euro banatu ditu Gabonetako zozketan. 10 sari izan dira guztira. Lehenengo bi sarituek 500 euroko erosketa txeketa jasoko dute eta gainontzekoek 100 eurokoa.

1. 85.175 (03.992)
2. 10.935 (21.084)
3. 37.615 (10.856)
4. 68.158 (57.943)
5. 38.149 (78.538)
6. 08.914 (17.446)
7. 21.665 (42.250)
8. 33.337 (71.341)
9. 10.504 (53.634)
10. 18.003 (90.919)

## Regina Otaola, Foru Aldundirako PPko hautagaia Elgoibarren izan da aste honetan



Regina Otaola, Foru Aldundirako PPko hautagaia gure herria bisitatu zuen martitzenean, herritarren iritziak jasotzeko asmoz. Inigo Arkauz, Elgoibarko PPko zinegotziaren laguntzaz, herritarren iritziak jasoz zituen. Urrian hasita, Gipuzkoako herri gehientsuenak bisitatu ditu Otaolak, hauteskundeetarako benetako kanpaina prestatu ahal izateko. Berak azaldu zigun bezala, "herritarren benetako beharrak ezagutu nahi ditugu". Herriko zenbait egoitza bisitatu zituzten, zer hobetu daitekeen aztertzeko: Eguneko Zentroa, Zaharren Biltokia...

## Zer sentitu zenuen Madrilgo atentatuaren berri izan zenuenean?

**AGURNE ARISTIMUÑO**  
Irakaslea  
36 urte



“Dezepzio handia hartu nuen. Bide onetik gindoazela uste nuen eta berriro lehengora itzuli gara. Pena bat izan da. Aurrera begira ez dakit zer gertatuko den.”

**BENJAMIN ATUTXA**  
Irakaslea  
55 urte



“Oso gaizki hartu nuen. Ez dago honelako ekintzak egiteko eskubiderik. ETAk gizarteak eskatzen duena egin beharko luke; amak utzi eta politikara dedikatu.”

**FERNANDO MENDIETA**  
Jubilatua  
65 urte



“Pena handia sentitu nuen, bi hildako egon dira, bi familia apurtuta gelditu dira eta hori ez dago konpontzerik. Lasai bizi izan gara eta orain berriro lehengora itzuli gara.”

**M<sup>a</sup> CRUZ ARNEDO**  
Administrataria  
48 urte



“Harrituta hartu nuen, ez nuen espero. Tentsio handia dago, baina hau ez da bakera lortzeko modurik onena. Atentatu honekin bake prozesua moteldu egingo da.”

## [ BAI ala EZ? ]

Modu berezian ospatu al dituzu Gabonak?

**BAI %24**

“Bai. Urte osoan ikusi ez ditudan senideekin elkartu naiz Gabonetan. Bereziak izaten dira egun hauek, poza eta tristura eskutik emanda. Oso ondo pasatu ditugu.”

**EZ %76**

“Ez. Umetan Gabonak iristeko desiatzen egoten nintzen, eta orain, zenbat eta lehenago pasa hobea! Tristeak eta faltsuak dira Gabonak. Gero eta gutxiago gustatzen zaizkit.”

Adituen esanetan, euskaldun bakoitzak 150 euro gastatuko ditu merkealdietan.


Datorren asterako.... **Ba al daukazu merkealdietan erosteko ohiturarik?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 personentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)

## JAIOTAKOAK



**Aura Ortega Torres**  
[Azaroak 29]  
Antonio eta Maria Dolores



**Ibai Fernandez Arakistain**  
[Azaroak 30]  
Alberto eta Idoia



**Ekaitz Aperribai Unanue**  
[Abenduak 2]  
Unai eta Ainara



**Iakes Unamuno Ramos**  
[Abenduak 9]  
Eneko eta Aintzane



**Ander Dorta Cei**  
[Abenduak 12]  
Andres eta Iris



**Maider Carril Mendieta**  
[Abenduak 12]  
Jose Eustaqui eta Remedios



**Iker Espiga Lodeiro**  
[Abenduak 15]  
Alvaro eta Ana Carolina



**Malen Vila Azpiazu**  
[Abenduak 19]  
Manuel eta Maria Jose



**Ane Rodriguez Calzacorta**  
[Abenduak 11]  
Carlos eta Amaia

**Gares Arriola Alberdi**  
[Abenduak 26]  
Ibon eta Naiara

**Haritz Rubio Ramirez**  
[Abenduak 3]  
Jose Luis eta Ines Maria

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.

## HILDAKOAK

Mercedes Aldekoa • [79 urte] • Abenduak 8  
Maria Cruz Apaolaza • [74 urte] • Abenduak 9  
Pako Urbieto • [61 urte] • Abenduak 18  
Agustina Iriondo • [101 urte] • Abenduak 19  
Lucia Ibarluzea • [93 urte] • Abenduak 21  
Antonio Etxaniz • [81 urte] • Abenduak 21  
Luisa Sorasu • [97 urte] • Abenduak 22  
Julian Aizpurua • [86 urte] • Abenduak 24  
Mercedes Cid • [78 urte] • Abenduak 29

## EZKONTZAK

Abenduan ez da ezkontzarik egon.

2007-1-12

# ETXEBERRIA

**Hileta zerbitzua**  
OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK**  
**TRASLADOAK**  
**KOROAK**

**NORBANAKOEI**  
**eta KONPAINIEI**  
**zuzenduriko**  
**zerbitzuak.**

**Donostia eta**  
**probintziako**  
**erietxe zentroetan**  
**ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

## MENDAROKO SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA

# KULTUR GUNEA ABIAN DA

*Mendaroko Garagartza auzoan dagoen San Agustin Kultur Gunearen aurkezpen ekitaldia, iragan den abenduaren 14an ospatu zen Kultur Guneko balio anitzeko aretoan; aitzina, Agustina mojen kapera zegoen lekuan, hain juxtu ere. Ekitaldi honetan aurpegi ezagun ugari egon ziren. Juan Jose Agirrezabala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kidea, Mendaroko Esti Gonzalez alkatea eta modu berean, Deba, Mutriku, Mallabia eta Eibarko Udal ordezkariak. Horiez gain, herritar ugari gerturatu zen inaugurazio ekitaldira. Eraikin honen jatorria XVI. mendekoa da eta bere garaian, Agustina mojen komentua izan zen. Hortik Kultur Guneari ezarri zaion izena. Gaurkoan, eraikin berri honen nondik norakoak Aingeru Gallastegik azaldu dizkigu.*

**G**isa honetako eraikin baten beharra, aspaldiko kontua dela adierazi digu Aingeru Gallastegi, Mendaroko kultur zinegotziak. Bere hitzetan, "Mendarok, orain arte, San Agustin Kultur Gunea bezalako azpiegiturarik ez edukitzea, gabezia handi bat izan da". Horregatik, proiektu hau, aurreko legealdian jarri zen abian Izartu programaren baitan eta hainbat behar asetzerara dator. "Kultur Gune berriari esker, kultur azpiegitura arloan geneukan hutsunea konpontzea lortu dugu. Behin helburu hau erdietsita, aurrera begira, eraikina edukiz beteta edukitzea litzateke gure bigarren erronkarik na-

gusiena" gaineratu digu Aingeruk.

### **Kultur Gunearen azpiegitura eta aurrekontua**

Kultur Gunea, hiru zati desberdinetan banatua dago. Batetik, Garagartza kalera eramaten duen eraikinaren zatian, Gaztegunea kokatzen da. Bigarren partean, berriz, areto nagusia dago; 180 lagun ingururentzat lekua duen bi pisutako auditorioaz mintzo gara. Areto nagusi hau, eszenatokiaz, jarlekuez, argiez eta soinu ekipoa hornitua dago. "Areto honetan, musika ekitaldiek ezezik, zine, antzerki edo bestelako ekintza mordo batek izan deza-


kete kabida", jakinarazo digu Aingeruk. Azkenik, bi solairutan banatuta, Ameikutz Musika Eskolak, bere egoitza du hemen, Kultur Gunean. Musika irakasteko gelak argiztapen handikoak dira. Horrez gain, Kultur Gune berriak, herriko zenbait musika taldek, euren entseguak egiteko leku aproposa eskaintzen die. Hala nola, Bizi Poza txarangak eta Mendaroko Eleiz Abesbatzak, dagoeneko, hemen burutzen dituzte euren entseguak. Inongo zalantzarik gabe, Kultur Gune berriak, kultur ekintza gehiago antolatzeke zubia izateaz gain, prestatzen diren jardueraz modu hobean eta erosoago gozatzeko aukera



ahalbidetzen du, eraikinak dituen ezau-garriei esker. Batzuk aipatze aldera, espazioen handitasuna, argiztapena eta giroketa ona. Instalakuntzak berriak dira oso eta eraikinak igogailua ere badu. Kultura-ekin zerikusia duten ekitaldientzako markoa izateaz gain, Aingeruk Kultur Gunetik gauzatu nahi diren bi egitasmoren berri eman digu. "Batetik, udaberri alderako martxan jarriko dugu Gaztegunea, 12-16 urte bitarteko gaztetxoei bideraturiko egitasmoa". Proiektu hau, Udalak kudeatuko du. Bestalde, bigarren egitasmoa, Mendaroko Gazte Asanbladak kudeaturikoa da eta 16 urtetik gorakoei zuzendurikoa. "Gure asmoa 16 urtetik gorakoentzat azpiegitura lehenbailehen abian jartzea izan da eta horrexegatik, uztailaz geroztik, Gazte Asanbladak du espazio horren giltza eta bertako aktibitate edo ekintzak aurrera eramateko konpromisoa.

Guztira, 2 milioi euro inguruko aurrekontua izan dute Kultur Guneko lanek eta Eusko Jaurlaritzaren Izartu programak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundua izan dira aipaturiko eraberritze lanak.

Argi dago Mendaroko herria handitzen doan heinean, eskaintzen dituen zerbitzuak ere, areagotzen doazela. Horren adierazgarri, aspaldion, inaugurazio eki-



taldi dexente izan dira. Pasa den urrian, esaterako, Eguneko Zentroak bere ateak ireki zituen. Iragan den abenduan, berriz, San Agustin Kultur Gunearen irekiera ofiziala ospatu zen. Hau gutxi balitz, Aingeruk, epe laburrerako beste zenbait egitasmoren berri ere, eman digu: "esku artean dabilkigun proiekturik garrantzitsuen, Arau Subsidiarioen behin behineko onarpena da. Eraikin berri batek duen dizdira

ez baldin badu ere, Mendaroko zer nolakoa izatea nahi dugun bertan jasotzen da. Horretaz aparte, datozen egunetan Kili-moi ibaiaren ekosistema berreskuratzeko lanak hasiko dira eta datozen asteetan, berriz, Ikastola handitzeko proiektuaren hitzarmena izenpetuko dugu Eusko Jaurlaritzarekin. Bi proiektu hauek, guztira, 1,2 milioi euro inguruko aurrekontua izango dute".



## lotsaGABE

**Maria Suarez** 16 urte

**Nola ospatu dituzu Gabonak?**  
Ondo, familiakoekin eta lagunekin. Gustatzen zaizkit Gabonak.

**Opariak egin ala jaso?**  
Biak. Ez baduzu oparirik egiten ez duzu jasoko.

**Zer eskatu diozu 2007ari?**  
Nire senideentzako osasuna.

**Norekin galduko zinateke irla deserta batean?**  
Orlando Bloom aktorearekin.

**Zineman, aurreko ala atzeko ilarak dituzu nahiago?**  
Atzekoak.

**Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?**  
Amari eta ahizpari, oso ondo konpontzen gara.

**Non eta nola ikusten duzu zure burua 10 urte barru?**  
Ikasketak bukatuta, lanean eta lasai.

**Dirua soberan izango bazenu...**  
Etxe bat erosi eta kezkarik gabe biziko nintzateke.

**Zure ametsetako bidaia?**  
New York-era joatea gustatuko litzaidake.

**Noiz egin zenuen negar azkenekoz?**  
Atzo, pelikula bat ikusten. Negar asko egiten dut.

**Zerk beldurtzen zaitu?**  
Armiamek kriston beldurra ematen didate.

**Zenbat aldiz begiratu diozu ispiluari kalera joan aurretik?**  
Hiru bat aldiz! Ez dut horretan denbora askorik pasatzen.

**Mutil batengan gehien gustatzen zaizuna?**  
Espainak.

**Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?**  
Bai, eskubide berberak eduki beharko genituzke.

**Ezkonduta ala elkarrekin bizi?**  
Lehenengo elkarrekin bizi eta gero, merezi badu, ezkonduta.

**Hil eta gero?**  
Zerbait egongo delakoan nago.







## biluzik

sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

### HIESa eta prebentzioa

*Abendua pasa da, eta urtero bezala, HIESaren Nazioarteko eguna ospatu dugu. Prebentziorako kanpainak egin ditugu, preserbatiboak banatu ditugu, laxo gorriak, ekintza ugari. Baina hala ere, GIBaren transmisioa goruntz doa: emakumeen artean igo da, homosexualen artean, bikote heterosexualen artean, etorkinen artean... Prebentzioa ezinbestekoa da.*

Komunikabideek datuak eta datuak ematen dituzte, baina HIESa "beti besteei gertatzen zaien zerbaite da, eta gainera ni ez naiz gaixoeekin erollatzen, ezta ezezagunekin ere, eta horrelako kasu bat gertatuko balitzait, preserbatiboa erabiliko nuke, beti erabiltzen dut..".

Urte zaharra, eta beti bezela urterokoa. Arratsaldean kalera eta pote batzuk hartu lagunekin, afaltzera kriston umorearekin iristeko. Familiakoekin batu eta denok antzera gaudenez, barre algarak,

Gabonetako kantuak, urteko afari ederrena noski ardo ezinhobe batekin... eta iritsi dira 12:00ak: mahatsak jan, txanpaina edan eta kalera! Parrandara! Lagunekin elkartu eta urte berri on! Muxuak, poza, alkohola, algara... eta gaua aurrera doan heinean, urtea ondo hasteko ligatzen saiatzen gara, eta bingo! Lortu dugu! Kotxera goaz, eta muxukatzen hasten gara, laztantzen biluzten, gero eta beroago gaude... kondoirik bai? Ez daukat... jo... baina behingogatik ez da ezer gertatuko...

kasualitate handia behar du izan haurdun geratzeko eta bihar hurrengo eguneko pastila hartuko dut... desiatzen nago... be-no bale, behingogatik...

Urtea ondo hasteko hurrengo eguneko pastila hartzen dugu eta listo, dena konponduta!

Datorren urtean ere HIESaren Nazioarteko eguna ospatuko dugu eta berriz ere, komunikabideek datuak emango dituzte: GIBa igo da, emakumeetan, heterosexualen, homosexualen, etorkinetan...



#### LANA

##### 2 PSIKOLOGO LANPOSTU NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAN

Psikologiako lizentziatura edo titulu balio-kidea izatea eskatzen da. Oposizio bidez hartuko dira langileak. Informazio gehiago 848 427000 / 848 427011 telefonoetan.

##### DIRUZAIN LANPOSTU 1 IRUÑEKO UDALEAN

Ekonomia edo Enpresa Zientzietako, Zuzenbideko edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura edukitzea eskatzen da. Informazioa: 948 420100.

##### HERNANIKO HAUR ESKOLARAKO IRAKASLEEN LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA

Haur Eskolan aldiko beharrak betetzeko irakasleen lan-poltza sortzeko deialdia egin. Informazio gehiago 943 337000 telefonoan.

#### SARIAK

##### IX. PABLO SOROZABAL LEHIAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatuta. 1971ko urtarilaren 1etik aurrera jaiotako konpositoreentzat. Saria: 3.500 euro eta ziurtagiria. Lanak indibidualak, orijinalak eta hari-kuarteto bantentzat idatziak. Estetika eta teknika libreak. Iraupena: 25 minutu gehienez. Epea: urtarrilak 31. Informazioa 943 112880 telefonoan.

##### ZARAUZKO INAUETERIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Euskalduna Taberna eta Zarauzko Turismo Bulegoak antolatuta. 1. saria: 400 euro, 2. saria: 200 euro. Gehienez 2 lan aurkeztu ahal izango dira. Gaia: "Zarauzko Inauteriak 2007- Otsailak 17-18 / Camavales 2006-17-18 de febrero". Teknika libre. Neurria: DIN A3. Epea otsailaren 4an amaituko da. Informazioa: 943 830990 telefonoan.

#### IKASTAROAK

##### GIPUZKOAKO ARTE ELKARTEAREN TAILERRAK

Ondorengo ikastaroak eskainiko ditu ekainera bitartean: grabatua, kapituluak espresioan, biluziak era naturalean, pintura-tailerra, oinarziko marrazketa, erretiratu, modelatzea... Informazioa 943 473837 telefonoan.

#### BEKAK

##### MUTIS BEKAK

Kanpoko Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioak Mutis Bekak atera ditu graduondoko eta doktoretza ikasketak burutzeko. Urri-tik hasita, urtebeteko iraupena du. 1.200 euro hilean. Epea: urtarrilak 31. Informazioa: 915838100, 915838101 eta 915838102.

##### ESPAINIAN ETA ATZERRIAN KULTURA ETA ONDAREA KUDEATZEKO BEKAK

Kanpoko Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioak ateratako bekak. Kultura kudeaketarekin zerikusia duten esparruetako lizentziatua izatea. 2007ko uztailean hasita, urtebeteko iraupena izango du bekak. Epea urtarilaren 31n bukatuko da. Informazioa: 915838100, 915838101 eta 915838102.

#### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: [elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)  
943 741 461

**5** Asteartetik ostiralera  
16:00-19:00

## SAN ANTON JAIAK

### San Anton egunerako hainbat ekitaldi antolatu dira

Urtero legez, San Anton zaindariaren eguna izango da datorren eguaztenean. Hori dela eta, jai egun honetarako zenbait ekitaldi antolatu dira. Goizeko 11:00etan Meza Nagusia izango da San Bartolome elizan, Parrokiako Abesbatzaren parte hartzearekin. Haurrentzako parkea ere egongo da Plaza Handian eta euria eginez gero, Ikastolan, goizeko 11:30etik 14:00etara eta arratsaldeko 16:30etik 19:30era. Eguerdiko 12:30ean beriz, Ertzaintzaren bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

#### IMHko museoa zabalik

Modu berean aipatu, Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa "tradiziozko ogibideak" izeneko jardunaldi berezi bat antolatu duela, 10:00etatik, 14:00etara. Gerturatzen den orok, garai batean pertsonak nola

lan egiten zuten ikusi ahal izango du. Makinak martxan ikusteaz gain, artisauek egongo dira lanean. Jardunaldia irekia izango da herritar eta publiko ororentzat eta hamarretakoa ere egongo da.

#### Zigilu erakusketa

Bestalde, bihar, XXVII. Zigilu erakusketa inauguratuko da Kultur Etxeko erakusketa gelan. Astegunetan (19:00-21:00) eta jai egunetan (12:00-14:00/18:00-21:00). Aurtun, 25 urte bete dituen gabon zaharretako gazta lehiaketari eskainia egongo da. Ekitaldi hau goresleko, "Correos"ek zigiluak markatzeko tresna berezi bat interesatu ororen eskura jarriko du, hilaren 13 eta 14an, erakusketaren ohiko ordutegian. Era berean, bihar, 14:30etik aurrera, Elgoibarko Filatelia Elkarteak Baltasar Pelotazale elkartearen bazkari tradizionala egingo dute.



Gogorarazi, urtarilaren 19an, "Ama quiero ser lehendakari" antzerki saioa ikusleko parada izango duzuela 22:15etik aurrera Herriko Antzokian. Samarak dagoeneko salgai daude, 8,5 eurotan, goizez Kultura Sailean eta arratsaldez, Gazte Informazio gunean.

#### Parrokiako jaiotza urtarilaren 17ra arte ikusgai egongo da

Elgojaiotzak antolatuta Parrokiako jaiotzak eguaztenera arte bere ateak publikoari irekiak izango ditu. Jaiotza 40 irudi mugikor baino gehiagok osatua dago eta aurtengo berrikuntzak honakoak dira: Venusen iturria, Erdi Aroko burdinoia eta Belengo Portalearen aurretik igarotzen diren bi pertsona talde. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 17:30-20:30 eta larunbat, igande zein jai egunetan, 10:30-13:30 eta 17:30-20:30.

#### Euskal dantzen ikastaroak Aste Santura arte jarraituko du

Ikastaroak astelehen eta asteazkenetan eta astearte eta ostegunetan eskaintzen dira, 21:30etik 22:30ak arte. Momentu honetan bi talde daude: bata, hasiberriena eta bestea dantzan aurretik ere aritu direnena. Ikastaro honen antolatzaileek, jendea euskal dantzak ikastera animatzen dute. Beraz, izena eman nahi duenak, Musika Eskolara jo dezake.

#### "Zorionak zuri" antzerki saioa Zirika Zirkus-en eskutik

Zirika Zirkus antzerki taldea, "Zorionak zuri" antzezlan berriarekin datorkigu Elgoibarrera. Antzerki lan hau, haurrei zuzendua dago eta domeka honetan izango da Herriko Antzokian, arratsaldeko 16:30etik aurrera.

Loretsu eta Bolintxe pailazoak urtebetetze jai bat ospatzeko asmoz azalduko dira eszenatokian, baina, zenbait

arazorekin aurkituko dira. Agerraldi honetan, ez dira faltako malabareak, akrobaziak, dantzak, magia, globoflexia, klauea eta oreka jokuak, besteak beste. Gainera, antzezpenaren izenburuak aditzera ematen duen bezala, ikuskizun bakoitzean, ikusle goaren artean aurkitzen diren haur bat edo besteren urtebetetzea ospatuko dute tarta eta guzti. Sa-



64. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSA

# Munduko zortzi korrikalari hoberenetatik lau izango ditugu domeka honetan Elgoibarko krosean

Urtarrilaren 14an, domekan, Elgoibarko Nazioarteko 64. Juan Mugerza Krosa izango da Mintxetan, goizeko 10:15etik aurrera. Hori dela-eta, pasa den martitzenean, Udaletxeko Pleno Aretoran, prentsaurrekoa eskaini zuten krosek antolatzaileek. Zigor Diez, Juan Mugerza krosoko koordinatzaile eta Mintxeta Atletismo Taldeko kideak lehen eskutik azaldu dizkigu 64. edizio honetako xehetasunak.

## 64. edizioko korrikalariak

Kalitate eta izen handiko atletak etorriko dira aurten gurera. Munduko zortzi korrikalari hoberenetatik, lau izango dira Elgoibarren. Faboritoei dagokionez, gizonetakoetan, Sileshi Sihine etiopiarra eta emakumeetakoetan, Mestawest etiopiarra ditugu. Europara jauzi eginaz, Fernando Silva portugaldarraren eta Juan Carlos de la Ossa espainiarren presentzia azpimarratzekoa da. Emakumeetakoetan, bestalde, Bezunesh Bekele atleta etiopiarra eta Aniko Kalovics hungariarra.

## Parte hartze erekorra

Guztira, 800- 900 bat korrikalarik hartuko dute parte lasterketa honetan. Duela sei urtetik hona, parte hartzea bikoiztu egin da. Nazioarteko korrikalarietaz gain, espainiar estatuko txoko guzietako ordezkariak



izango ditugu gure artean. Guztira 10 lasterketa jokatu dira Mintxetako zirkuituan. Eguerdiko 13:00etan, ekingo zaio gizonetako senior mailako lasterketari, eta hauen aurretik, emakumeetako arituko dira.

## Zirkuituaren ezaugarriak

Zirkuituaren gaineko berrikuntzei buruz, adierazi, aurten, kanpoko igerilekuak kokatzen diren tokian, bertaraino ikusleak errazago iritsi daitezzen, eskailera bat jarri dutela antolatzaileek. Modu berean, jakinarazi, edizio honetan, areta berezia merezi duela junior kategoriako krosak. Izan ere, honako hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin aurrera eramango den bosgarren edizioa izango da. Gainera, ohiko herrialdeetako atleten parte hartze

zeari, Italiako korrikalariak gehitu behar zaizkio.

## Ikuskizuna bermatua egongo da

Urtero bezala, Mintxeta Atletismo Taldeak lan handia egin du aurtengo edizioa prestatzen. Iaz bezalaxe, ehun mila euroko aurrekontua eduki du eta Kirol Patronatuaren zein Udalaren laguntza. Zigorrek herri-tarrak animatu nahi ditu, domeka honetan krosa ikustera joan daitezzen, bereziki jende gazteari dei eginaz. Elgoibarko Juan Mugerza krosa, herriko ekitaldi garrantzitsuenetarikoa da eta aurrerantzean ere, kirol ekimen honek bizirik jarraitzea da antolatzaileen helburua. Honenbestez, ia eguraldiak laguntzen duen eta ikuskizun eta giro ezin hobea gozatzen dugun igande honetan.



## FABORITOK

### GIZONEZKO SENIORRAK

- Sileshi Sihine (Etiopia) - 2006ko munduko kros txapelkunordea
- Hosea Macharinyang (Kenia) - 2006ko munduko kros txapelketan 6. postua
- Yonas Kifle (Eritrea) - 2006ko munduko txapelketako 7. sailkatua
- Ali Abdallah (Eritrea) - 2006ko munduko txapelketako 8. sailkatua
- Fernando Silva (Portugal) - Egungo europako kros txapelkunordea

### EMAKUMEZKO SENIORRAK

- Mestawest Tufa (Etiopia) - 2006ko munduko kros txapelketan 7. sailkatua
- Bezunesh Bekele (Etiopia) - 2006ko munduko txapelketan 9. postua
- Aniko Kalovics (Hungaria) - Denboraldiko europar krosekoko 4. sailkatua

## KIROLA EUSKARAZ PROGRAMA

### Euskarazko kirol fitxa teknikoak kalean daude



**K**irola Euskaraz programa aitzakiatzat hartuz, Pilatesari eta Boleibolari buruzko fitxa didaktiko berriak plazaratu dituzte. Debarroko Udaletako Kirol eta Euskara Zerbitzuek, euskarazko fitxa didaktikoak aurkeztu zituzten pasa den abenduaren 5ean. Aurkezpen ekitaldia Debegesako instalakuntzetan egin zen.

Debarroko Udaletako Kirol eta Euskara teknikariekin batera, Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko Kirol Zuzendari Nagusia, Xabier Huizi Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia, Estanis Osinalde, Debe-

gesako lehendakariordea eta, nola ez, 2006ko fitxen egileak izan ziren bertan: Amets Maiztegi, June Gonzalez, Aitor Zarragoitia, Aitor Txopitea eta Ander San Sebastian. Pilates kirol jarduerari buruzko fitxen egileak Amets Maiztegi eta June Gonzalez izan dira; punta-puntako kirol honen arloan euskaraz dagoen material gabeziak bultzatu ditu gai horren gaineko fitxak prestatzera. Fitxa hauek Elgoibar-ko Udaleko Kirol Patronatuak zabalduko ditu.

### Olaizaga Kiroldegiaren oharra

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du, urtarrilaren hasieran kontu korrante bitartez helbideratuko direla kirol txartela berritzeko urteko kuoten ordainketak.

Era berean, Patronatuko bazkide izan nahi duenak, Olaizaga Kiroldegitik pasa beharko du datuak emateko.

Bestalde, norbaitek baja eman nahi izanez gero, 943 74 44 15 telefono zenbakira deitu dezake.

Urteko abono familiarak 171,80 euro balio ditu eta banako abonua 95,05 euro.

### 156 lagunek hartu zuten parte San Silvestre eguneko I. lasterketa herrikoian

Abenduaren 31n estreinakoz, Elgoibarran ospatu zen San Silvestre eguneko I. lasterketan, 156 atxintxarrik hartu zuten parte. Gainera, korrikalari guztiek amaitu zuten 5 kilometrotako ibilbidea. Eguraldia ere, beren alde eduki zuten, giro paregabea sortuz. Antolatzaileak pozik agertu dira herritarren erantzunarekin, eta 2007. urteari begira, kirol ekimen honi jarraipena emateko asmoa erakutsi dute Urgazi Triatloi taldekoek beren web gunean. Ildo beretik aipatu, Azpeitian ospatzen den urteroko San Silvestre eguneko lasterketa aski ezagunean, 10 elgoibartarrek parte hartu zutela. Honatx beren denborak: Unai Gantxegi (28:59), Ibon Gabilondo (31:42), Alberto Garate (34:14), Jo-



su Artetxe (36:47), Jose Antonio Nogales (34:56), Ignacio Perez (36:54), Asier Arrieta (36:57), Antonio Fernandez (37:03), Gorka Sastre (37:19) eta Antonio Martin (41:56).

### Aitor Romerak irabazi du Morkaikoko Argazki Lehiaketa

Aitor Romera elgoibartarrak irabazi du, "Saussolongo Dolomitak" izeneko argazkiari esker, Morkaiko M.E.aren 2006. urteko argazki erakusketako aurreneko saria. Dalomitetan (Italian) ateratako argazkia dugu eta honi esker, 150 euro bereganatu ditu.

Ikusleek beren bozken bitartez, bestalde, Victor Ramalen "Urak dakar edertasuna" argazkia saritu zuten. Honek, 100 euroko diru saria poltsikoratu zuen. Azkenik,

aipatu erakusketa ikustera gerturatu ziren pertsonen artean egindako zozketan, Luis Mari Zabaletari mendiarri buruzko liburu zoragarri bat egokitu zitzaiola.

Morkaiko Mendizale elkartetik balorazio ona egiten dute. Guztira, maila handiko 38 argazki aurkeztu ziren lehiaketara eta horrez gain, 300 pertsona inguruk bisitatu zuten mendia gaineko argazki erakusketa. Antolatzaileen hitzetan, ekitaldi arrakastatsua izan da 2006koa.



## ESKU PILOTA

### Eneko Loiolak senior mailako lehen kategoriarako txartela lortu du

**A**txotegi eta Loiolak osaturiko pilotari bikoteak klubaren arteko txapelketa irabazi zuen pasa den hilean Seguran jokatu zen finalean. Honela, senior mailako lehen kategoriarako txartela lortu zuen Elgoibarko lagunak taldean aritzen den bikoak. Aurkariak Azpeitiko Ilunpe taldeko ordezkariak izan zituzten eta azken emaitza 22-20koa izan zen elgoibartarren alde. Aurrera begira, beren erronka nagusia, bikotekako San Anton Pilota Txapelketan euren mailarik hobereana erakustea da, gaur eta hilaren 20an Ikastolako frontoian jokatu diren partidetan. Atxotegi eta Iruretak osaturiko bikoak 15-22 galdu zuen pasa den barixakuan Alvaro eta Merinoren aurka. Besetik, Loiola eta Baez II. enak, Mikel Gonzalez eta Izaren kontra arituko dira buruzburu gaur gaueko 22:00etatik aurrera Ikastolako frontoian.



## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 2 - San Ignacio 1  
 Elgoibar1 - Amaiak Bat 0 (erreg.1.mail)  
 Martutene 1 - Elgoibar 1 (jub.)  
 Zumaiako 3 - Elgoibar 2 (neskak)  
 Elgoibar 4 - Lazkao 1 (kad.)  
 Aloña - Mendi 1 - Elgoibar 0 (O. infanti)  
 Elgoibar 3- Zarautz 1 (inf. txik)

### ESKUBALOIA

Pulpo 25 - San Ignacio 22  
 Beti Ona 27 - Tecnifuelle 23  
 Lojantzi 22 - Euskal Selektzioa 26  
 Tecnomeca 29 - Beti Ona 19

### PILOTA

San Anton Txapelketa  
 Larrañaga/Uzkudun 16 - Gorka/Linzoain 22  
 Alvaro/Merino 22 - Atxotegi/Irureta 15

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 13  
 11:45 Elgoibar - Touring (Oho. inf)  
 16:00 Elgoibar - Irintxa (erreg.1.maila)  
 18:00 Elgoibar - Anaitasun (jub.)

### ESKU PILOTA Ikastolan

San Anton Txapelketa  
 Barixakua, 12  
 22:00etaik aurrera  
 Yoldi/Beroiz - Andreu/Diaz de Ulzurrun (promesak)  
 Gonzalez/Iza - Baez II/Loiola (nagusiak)

### ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 13  
 16:00 Aterpe - Aiala C  
 17:30 Lojantzi - Basauri  
 19:00 Tecnifuelle - Zarautz




### 15 Bizikleta berri erosi ditu Kirol Patronatuak Spinning ikastaroetarako

Elgoibarko Udak Kirol Patronatuak guztira 15 bizikleta berri erosi ditu spinning ikastaroetarako eta dagoneko, erabili ditzakete kirol honetan parte hartzen dutenek. Bizikleta berrien kostua, 12.000 eurokoa izan da. Gaur egun, 205 pertsonak dihardute spinning ikastaroetan.

## ESKERTZA

2006ko abenduaren 22an, 97 urte zituela hil zen **Luisa Sorazu Mendizabalen** sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Pisia salgai Alitzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea.

**619812448**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 3 logela, egongela, jangela, komuna, trastelekua, 2 igogailu. Berritua.

**680707639**

▶ Pisia salgai Verin-en (Galizia). Castilla Etorbidea, San Roke taberna ondoan. 3 logela, salaio, sukaldea, 2 bainugela, ganbara. Prezio onean. Jantzita. Igogailua eta berogailua. **666701846 (Maria)**

▶ Etxea salgai Basarten. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaiea. Igogailua.

**635204219**

### ALOKAIRUA

▶ Gasteizen 2 logela alokatzen ditut. Erdialdean. **699099249**

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **943530331**

▶ Bi lagunentzako etxea hartuko nuke alokairuan. 400 edo 450 euro ordaintzeko prest.

**943530631**

▶ Logela bat alokatzen dut.

**635206436**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garaie merraduna alokatzen da San Roke kalean. **943741436**

▶ Lokal txikia alokatzen da. 18 urte-rik gorakoentzat. **667838858**

▶ Garaie itxia alokatzen da Mendaron, Garagartzan. Berria. 65 euro hilean. **653709955**

▶ Garaie merraduna alokatzen dut Pista Beltzean.

**943744398/943740070**

▶ Garaie itxia alokatzen dut Madalan. **636097290**

▶ Garaie itxia alokatzen dut Urasandin. Bi solairukoa.

**943740434**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ Estaldura elektrolitikoan (urrea, zilarra, nikel, letoia...) enpresa baten %50a saltzen da. 36.000 euro.

**626346135**

▶ Sozietate gastronomiko batetako bazkide postua saltzen dut.

**626346135**

▶ Ordenadore pantaila, inpresora eta teklatura salgai. Modu onean.

**628598359**

▶ Compaq Presario ordenagailu portatil amerikarra salgai. 15,4" pantaila, 512MB, RAM 40GB diskoa, DVD-ROM/CD-RW. 6 hilabete. 450 euro. **6503444428 (Ibon)**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garaieak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## [ AUTOAK ]

▶ Opel Astra Caravan 2.0 DTI 16v. autoa salgai. Egoera onean. Beti garaiean.

**943743489/667015155**

▶ Ford K autoa salgai.

**629759316**

▶ Rover 414 autoa salgai. SS-AX.

**943 740251**

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea lanerako prest.

**639020180**

• Emakumea lanerako prest.

**647400572**

• Gizona lanerako prest.

**943530132 (Gabino)**

• Bi emakume lanerako prest.

**943033601**

• Mutil gaztea asteburuetan lan egiteko prest.

**627104915**

• Emakumea lanerako prest.

**610632782**

• Gizona eliktrizista lanerako prest.

**943530132**

• Emakumea eta gizona lanerako prest.

**626416367**

• Mutila igeltsero edo txofer lanerako prest.

**664576697**

• Emakumea etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuetan.

**664775970**

• Emakumea lanerako prest.

**699813826**

• Emakumea lanerako prest.

**610396965**

• Emakumea etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest.

**943530803**

**Jackeline (gavez)**

• Emakumea eskaintzen da lanerako. Astean 3 egun.

**666701846 (Maria)**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, tabernan lan egiteko prest.

**699576107**

• Ingeles klase partikularrak ematen ditut etxeetan.

**606733850**

• Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan.

**663572424 (Xiomara)**

• Esperientziadun estetizista lanerako prest.

**696794107**

• Emakumea lanerako prest.

**646832693**

• Neska garbiketa lanak egin, edo nagusiak edo haurak zaintzeko prest.

**617056828**

• Emakumea lanerako prest.

**666001575**

• Emakumea lanerako prest.

**636362251**

• Emakumea lanerako prest.

**646235195**

• Emakumea lanerako prest, externa edo interna moduan.

**686578228**

### ESKAITZA

• Mendaron emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Orduka.

**943033707**

• Harategirako mutil euskalduna behar da.

**943742048**

• Jatetxerako kamarera eta sukaldari laguntzailea behar dira.

**943121262**

• Emakumea behar da etxeko lanak egiteko.

**647416313**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsona behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak.

**607824892**

• Esperientziadun kamareroa behar da. Asteburuetan jai.

**636015707**

• Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko.

**637753755**

• Neska euskalduna behar da tabernarako.

**670654921**

• Asteburuetan tabernan lan egiteko kamareroak behar dira.

**670250429**

• Debako taberna baterako kamareroa behar da.

**629720293**

• Persona euskalduna behar da tabernarako. Astean zehar eta asteburuak txandaka.

**943742897**

• 35 urte bitarteko emakumea behar da goizez jantxidandana lan egiteko. Esperientziaduna.

**676899604 (goizez)**

• Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.

**943744582**

**(20:00-21:00)**

## ABISUAK

• 4 urteko alemaniar artzai txakur emea eta 3 hilabeteeko euskal artzai txakur arra oparitzen dira. Pedigreearekin. Oso mantsoa.

**696263512**

• Urrezko eraztuna galdu nuen abenduaren 24an. Amatista bat eta brillante txikiak ditu alde bietara.

**943740937**

• Sofa zaharrak hartuko genituzke.

**659769721**



LANPOSTU ESKAITZA:

REKTIKADORE edo ARTEZTARIA

ESPERIENTZIADUNA

Interesa duzuenok, bidali CVa Debako 5. Posta Kutxatilara urtamilaren 25a baino lehenago, RW postua adieraziz.

## [ ZORIONAK ]



▶ Zure birbiloben eta familiakoen partez, zorionak! Datorren urtean 101 urte ospatuko ditugu. Aupa txapeliduna.



▶ Azkenean 9 urte! Zorionak **Maialen!** Familiakoen eta bereziki, Aroaren partez.



▶ Zorionak **Carla** atzo 10 urte egin zenituelako. Gurasoen, Ander eta amonaren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Aitor** urtarrilaren 4an 5 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, anaien partez.



▶ Zorionak **Jon** urtarrilaren 4an urtetxo bat egin zenuelako. Muxutxo bat etxekoek partez.



▶ Zorionak **potxolito** zure 1. urtebetetzean.



▶ Zorionak **Pitxin!** 5 urte egin dituz! Patxo asko denon partez.



▶ Zorionak **Danel** 4 urte egin dituzulako. Gurasoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Ekain** hilaren 17an urtebete egingo duzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Julene** abenduaren 28an 10 urte egin zenituelako. Olaia eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Ainhoa** urtarrilaren 6an urte bat egin zenuelako. Familiakoen, bereziki Nerearen partez.



▶ Zorionak **Leire** hilaren 5ean 8 urte egin zenituelako. Zu bai erregeen opari polita! Muxu bat!



▶ Zorionak **Ana Delia** 4 urte egin dituzulako. Gurasoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Onintza** hilaren 7an 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat denon partez.



▶ Zorionak **Paulo eta Iker** hilaren 15ean 73 eta 17an 3 urte egingo dituzuelako. Etxekoek partez.



▶ Zorionak **Elena eta Nerea** 12 eta 29 urte egin zenituztelako. Miriam eta aitaren partez, muxu handi bat.



▶ Zorionak **Oinatz eta Markel!** Ondo pasa zuen urtebetetze egunean. Muxu asko ikastolako laguntxoek partez.



▶ Zorionak **Ane eta Nora** 9 eta 6 urte egingo dituzuelako. Etxekoek partez.



▶ Zorionak gure bi **Juneri** bi urte egin dituzuelako. Muxu handi bana ikastolako laguntxoek partez.



▶ Zorionak **Gorka eta Anton** hilaren 16an eta 17an urteak egingo dituzuelako. Familiakoen partez. Oso ondo pasa!



## [ OKINDEGIA ]



14 igandea DOÑA MERCEDES

17 eguaztena EIZAGIRRE



## [ FARMAZIAK ]

- GUARDIA** 24 ORDUZ  
 12 Etxeberria (*Errosario*)  
 13 Ibañez  
 (\* *Goizez Yudego*)  
 14 Ibañez  
 15 Bidasolo  
 16 Etxeberria (*Santa Ana*)  
 17 Fernandez  
 18 Yudego  
 19 Zabaleta

\* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBAÑEZ**  
 Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
 Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84



### ESKERTZA

2006ko abenduaren 24an, 86 urte zituela hil zen  
**Julian Aizpurua Arostegui**ren sendiak,  
 bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2006ko abenduaren 25ean hil zen  
**Jesus Idiakez Elorzaren** sendiak,  
 bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2006ko abenduaren 21ean hil zen  
**Antonio Etxaniz Arrizabalaga "Tdetxe"**ren sendiak,  
 bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### II. URTEURRENA

2005eko urtarrilaren 12an, 83 urte zituela hil zen  
**Luken Larreategi Orunaren**  
 oroimenez urteurreneko meza izango da,  
 igandean, hilak 14, goizeko 10:30etan Parrokian.  
 Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





## [ 12 BARIXAKUA ]

11:00 edo 18:00

**"IT KAZGUNEA: INTERNETEKO OINARRIZKO IKASTAROA"**

16 urtetik gorakoentzat  
Urtarrilaren 19ra arte (dohainik).

17:30-20:30 **PARROKIAKO**

**JAIOTZA** (urtarrilaren 17ra arte ikusgai, astelehenetik ostiralera) eta

10:30-13:30/17:30-20:30

(larunbat eta jai egunetan).

Antolatzailea: Elgojaitza.

22:00 **SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALERDIAK**

Ikastolako frontoian.

Antolatzailea: Lagunak taldea.

## [ 13 ZAPATUA ]

12:00 **XXVII. ZIGILU**

**ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**

(Ordutegia, astegunetan, 19:00-21:00 eta jai egunetan 12:00-14:00 eta 18:00-21:00).

Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:30 **LXIV. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSEAN PARTE**

**HARTUKO DUTENEI HARRERA**

Udaletxeko Pleno Aretoan.

## [ 14 DOMEKIA ]

10:15 **LXIV. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSA**

Mintxetan.

Antolatzaileak: Mintxeta Atletismo taldea, Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatua.

16:30 **"ZORIONAK" ZIRIKA ZIRKUS ANTZERKI TALDEAREN EMANALDIA**

Herriko Antzokian.

(Sarrerak lehiatilan salduko dira egunean bertan).

## [ 17 EGUAZTENA ]

**SAN ANTON EGUNA**

10:15 **ELGOIBARKO MAKINA ERREMINTAREN MUSEOAK BERE ATEAK IREKIKO DITU**

(Bisitaldia doan eta gidatua izango da).

11:00 **MEZA NAGUSIA** (San

Batolome Parrokiako Abesbatzak abestuko du).

11:30-14:00 eta 16:30-19:30

**UMEENTZAKO PARKEA**

Plaza Handian, (euria eginez gero, Ikastolan).

12:30 **ERTZAINZAREN**

**BANDAREN KONZERTUA**

Herriko Antzokian.

Egitaraua: "Coronel Bogey" (Arr. I.

Urkizu); "Poeta y Aldeano" (Fr. Von

Suppé), "Amapola" (N. Iwai),

"Concierto para Txistu y Orquesta" (T.

Aragúes) eta "Birigarroa" (Arr. I. Urkizu).

## [ 19 BARIXAKUA ]

22:15 **"AMA QUIERO SER LEHENDAKARI" ANTZERKI EMANALDIA**

Herriko Antzokian.

(Sarrerak aurrez salgai).

# ZINE

## KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN



«Eragon»

12, barixakua: 22:15

13, zapatua: 19:30-22:15

14, domeka: 19:30-22:15

15, astelehena: 21:30

«The Holiday»

17, eguaztana: 19:30

**EIBAR, UNZAGA**

«The Holiday»

12, barixakua: 19:30-22:15

13, zapatua: 17:00-19:30-22:15

14, domeka: 17:00-19:30-22:15

15, astelehena: 19:30-22:15

16, martitzena: 19:30-22:15

17, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

# SINOPSISIAK

«Eragon»

Zuzendaria: Stefen Fangmeier.

Antzezleak: Edward Speleers, Jeremy Irons, Sienna Guillory.

Eragon izeneko mutil batek harribitxi urdin bat aurkitzen du. Ixura guztien arabera, harribitxia zirudiena, ordea, herensuge baten arrautza izango da. Honen ondorioz, Eragonen bizitza guztiz aldatuko da. Eragon eta herensugeak, lurralde arrisksuetan bama bidaiatu beharko dute eta errege zital baten aurka egiteko tenorean aurkituko dira.

«The Holiday»

Zuzendaria: Nancy Meyersus.

Antzezleak: Cameron Diaz, Kate Winslet, Jude Law.

Amanda Woods, Kalifornian bizi da eta Iris Simpkins Erresuma Batuan. Bi emakume hauek elkarrengandik urrun bizi diren arren, beren bizitzak puntu berera iritsiko dira. Biek beren bikotekideak utzi dituzte. Horrela, etxeen elkartrukera dedikatzen den web gune bati esker, Amanda eta Iris-ek beren bizi lekuak aldatuko dituzte denboraldi batez.

# Atzera hegira



**1985**. urteko erretratu zahar hau **Anjel Martinek** laga digu. San Pedroko pagadian ateratako argazkia da. 60ko kintoen bazkaria egin zuten egun honetan. 1975ean egin zuten estreinakoz bazkari hau, eta ordu hartan 5 edo 6 lagun bakarrik elkartu ziren. Javier Celaya, Julian Etxeberria, Domingo Barrenetxea, Satur Viñaras eta Pedro Aranbarri izan ziren antolatzaileak. Orduetik aurrera, urtero egiten dute San Pedron bazkari hau eta poliki-poliki jende gehiago elkartu zaie. Urtero-urtero, hutsik egin ez duena Javier Celaya izan da. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen direnak.

Goian: **Saez (Burgos)**, **Antonio Zubizarreta (Azkoiti)**, **Boyer**, **Anjel Garcia**, **Enrike Iriondo (Mendaro)**, **Anjel Ariola ( )**, **ezezaguna**, **Enrike Etxaniz**, **ezezaguna**, **Anjel Iranzo**, **Jesus Muguruza**, **Julian Agirregabiria (Huarte)**.

Bigarren ilaran: **Luis Urbieta (Mendaro)**, **ezezaguna**, **Javier Celaya**, **Anjel Martin**, **Javier Barandela**, **Gillemo Alberdi (Azkoiti)**, **Jose Martinez ( )**, **Luis Fuentes**, **Jose Osoro**, **Luis Fernando Astigarraga**.

Hirugarren ilaran: **Luis Mari Aranberri ( )**, **ezezaguna**, **Ignacio San Sifena (Irun)**, **Araneta (Itziar)**, **Enrike Beristain (Irun) ( )**, **Domingo Arriola (Mendaro)**, **Laja (Azkoiti)**, **Salvador Beristain (Itziar)**, **Unanue (Eibar)**, **Julian Etxeberria**, **Ignacio Bastarika (Azkoiti)**, **German Moreno**, **Jose Larrañaga (Soraluze)**.

Laugarren ilaran: **J.M. Beristain**, **Jose Carrillo (Irun)**, **ezezaguna**, **Berasategi (Zumarraga) ( )**, **Benito Lopez (Galizia)**, **Fernando Rolo (Caceres)**, **Domingo Barrenetxea**, **Satur Viñaras (Soria)**, **Enrike Beristain (Azkoiti)**, **Pedro Aranberri (Azkoiti)**, **ezezaguna**, **Pedro Urain (Mendaro)**, **Javier Arizabalaga**, **Gillemo Garate ( )**, **Don Carlos Agirre (parrokoa)**.

Bosgarren ilaran: **Agirresarobe (Eibar)**, **Jose Luis Ramon "Maño"**, **Ismael Aranguren (Irun)**, **Bolinaga (Oñati)**, **Jesus Alberdi (Azkoiti)**, **Boske (Zumarraga)**, **Jose Luis Bores**, **Agustin Bolinaga "Tarzan" (Arrasate)**, **Jose Luis Segurola (Gasteiz)**, **Jesus Zeziaga (Bergara) ( )**, **Ramon Etxaniz (Deba)**, **Azumendi (Arrasate)**, **Ramon Zabala**.



Makina Erremintaren Museoa:

## ***“Tradiziozko ogibideen” jardunaldia***

Urtarrilak 17, San Anton  
Goizeko 10:00etatik 14:00etara

Elgoibarko herritar guztientzat irekia:

Bisita ezazu Museoa martxan eta ezagutu tradiziozko armaginak, errementeriak eta mekanizatuak.

Artisauen erakustaldia egongo da eta hurbiltzen zaretenontzat hamarretakoa eskainiko da.



[www.makina-erremintaren-museoa.com](http://www.makina-erremintaren-museoa.com)

AMA, QUIERO SER

# LEHENDAKARI

Urtamilak 19  
(ostirala)

22:15ean  
Heriko Antzokian



## "ZORIONAK"



ZIRKA  
ZIRKUS

Urtarrilak, 14  
igandea  
16:30ean  
Herriko Antzokian

